

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LASARTEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Lasarte-etxea zentro sozialaren instalazioak txoko moduan erabiltzea arautzen duen ordenantza**

Kontzeju honek, 2019ko maiatzaren 30eko bilkuran, hasierako onespena eman ziolarik Lasarte-etxea zentro sozialaren instalazioak txoko moduan erabiltzea arautzen duen ordenantza aldatzeko espedienteari, eta jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsita geratzen da. Beraz, Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauaren 16.4. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, aldatutako aginduak oso-osorik argitara ematen dira, indarrean jar daitezten.

#### **1. artikulua. Hitzaurrea**

Lasarteko kontzejua da garai batean eskola eta gaur egun herriko batzar etxea den eraiki-naren jabea. Eraikin hori txoko moduan erabili ahal izateko, han egingo diren jarduerak arautu behar dira.

#### **2. artikulua. Xedea**

Lasarteko kontzejuak, bere burua antolatzeko duen ahalmenez baliatuz, zeinak Kontzejuen 11/1995 Foru Arauan aitortuta baitaude, eta arau horren 6. eta 7. artikuluetan jasotzen diren eskumenak erabilia, kultura zerbitzu bat ezarri du, batzar etxean (aurrerantzean, "txokoa") dauden lokalak zentro soziokultural eta gastronomiko moduan erabili daitezten.

Ordenantza honen xedea da txokoaren balizko erabilera arautzea.

Lokala beste zerbaitetarako erabili nahi bada, auzotarren batzarraren baimena jaso beharko da aldez aurretik, edo, hala badagokio, administrazio batzarrarena.

#### **3. artikulua. Erreserbaren titularra**

1. Erreserbaren titulartzat hartzen da pertsona talde baten izenean (aurrerantzean, erabiltzaileak) txokoa erabiltzen uzteko eskatzen duen pertsona fisikoa.

2. Erreserbaren titularrak txokoaren erabiltzaileetako bat izan behar du nahitaez erreserbatutako egunean.

3. Honako hauek erreserbatu ahal izango dute txokoa:

a. Lasarteko erroldan izena emanda dauden pertsonak.

b. Lasarten egoitza duten irabazi asmorik gabeko elkarteak.

4. Ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten pertsona fisiko edo juridikoek ezingo dute txokoa erreserbatu.

#### **4. artikulua. Erreserbaren titularraren eta erabiltzaileen mugak**

1. Txokoaren erabiltzaile guztiek ordenantza hau bete behar dute.

2. Erreserbak egitean administrazio batzarrak izango du lehentasuna. Dela antolamenduzko arrazoiengatik, dela zerbitzuak emateagatik edo beste zerbaitengatik, edozein erreserba ezeztatzeko eskubidea izango du.

3. Legezko kargudunek ordezkaturako dituzte 3.3.b. artikuluan zehazten diren elkarteak, edo haiek eskuordetutako pertsonak.

4. Txokoa ezingo dute behin eta berriz pertsona berek erreserbatu egun edo jaiegun berberetarako.

5. Erreserbak pertsonalak eta besterenezinak dira. Erreserbaren titularrak ezingo du hura beste erabiltzaile baten esku utzi. Ondorioz, beste erreserba bat egin beharko da, edo, bestela, erreserbaren titularrak egiaztatu beharko du egun horretan ezin dela txokora joan.

#### **5. artikulua. Erreserbak**

1. Erreserba egiteko, honako datu hauek jaso behar dira txokoko liburuan:

- Izen-abizenak
- Pertsona kopurua (zenbat heldu eta zenbat adingabe)
- Erabiltzailearen telefono zenbakia

2. Erreserba egitean, ezingo da gainditu 6. artikuluan zehazten den edukiera.

3. Erabiltzaileak ezingo du erreserba egin baldin eta zigortuta badago 11. artikuluan jasota dauden kasuetako bategatik, eta debekatuta badauka txokora sartzea.

4. Garbiketa lanak egingo dituen pertsonari gutxienez 48 ordu lehenago abisatuko zaio, eta ahal bada whatsapppe.

5. Garbiketagaratik gutxienez 2 ordu ordainduko dira. Garbitzaileari iruditzen bazaio denbora gehiago behar duela bere lana egiteko, erabiltzaileari jakinaraziko dio.

6. Erreserba ezeztatuta eta garbitzaileari 24 ordu lehenago jakinarazten ez bazaio, 2 orduko garbiketari dagokion zenbatekoa ordaindu beharko da.

#### **6. artikulua. Edukiera**

1. Erabiltzaile kopuruak, erreserbaren titularra barne hartuta, ezingo du gainditu txokoarentzat ezarrita dagoen edukiera:

- Lasarte-etxea txokoa: 29 pertsona beheko solairuan eta 49 pertsona goiko solairuan.

#### **7. artikulua. Erabiltzeko ordutegia**

1. Erreserba bakarria egin ahal izango da eguneko eta eskatzaileko.

2. Txokoa bazkaltzeko edo afaltzeko erabili daiteke. Bietarako erreserbatuz gero, 4 garbiketa ordu ordainduko dira: 2 ordu bazkariagaratik eta 2 ordu afariagaratik.

3. Oro har, hau izango da txokoa erabiltzeko ordutegia:

a. Irekiera/sarrera: 09:00etatik aurrera (txokoa garbitzen ari direnean izan ezik).

b. Itxiera/irteera:

i. Astelehenetik ostegunera: hurrengo eguneko 00:30ak.

ii. Ostirala, larunbata eta jai bezperak: hurrengo eguneko 02:30ak.

iii. Igande eta jai egunak: hurrengo eguneko 00:30ak.

#### **8. artikulua. Tasak**

1. Erabiltzeagaratik tasak eta garbiketaren orduko prezioa kontzejuaren erabakien bidez arautuko dira.

2. Tasak ordaintzeari dagokionez, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- a. Erreserbaren titularrak izango du ordaintzeko betebeharra.
- b. Ordainketa 7 eguneko epean egin beharko da txokoa erabili den egunetik.

#### **9. artikulua. Erabiltzaileentzako debekuak**

1. Txokoko altzariak kalera ateratzea, aukiak salbuetsita (erabiltzailearen ardurapean).
2. Lokala erreserban adierazitakoaz bestelako xede baterako erabiltzea.
3. Lokalean janaria, edariak, zaborra edo aurretik eraikinean ez zegoen edozer gauza uztea.
4. Kanpoan musika ekipoak edo antzekoak jartzea baimenik gabe.
5. Musika ekipoak erabiltzean, ordutegiaren arabera legez ezarritako muga gainditzea (65 dezibelio egunez eta 32 dezibelio 22:00etatik aurrera).
6. Txokoa erabiltzen uztea beste norbaiti, 4.6 artikuluan dioena urratuz.
7. Titulartasun publikoko eraikina denez, lokal publikoetan alkoholaren eta tabakoaren kontsumoa arautzen duen legeria beteko da. Beraz, txokoa ezingo da erre, eta adingabeek debekatuta izango dute alkohola edatea.
8. Debekatuta dago txokoa diruzko apustuak egitea.
9. 22:00etatik aurrera, txoko barruan ezingo da egin bizilagunak gogaitu ditzakeen zaratarik (ozen hitz egin, musika entzun, abestu, eta abar). Hau da, zaratei buruzko udal araudia bete beharko da.

10. 22:00etatik aurrera, debekatuta dago txokoko atearen ondoan edo inguruetan geratzea, bizilagunak ez gogaitzeko.

11. Debekatuta dago Lasarte-etxeko eraikinean lo egitea.
12. Debekatuta dago sukaldea cateringerrako erabiltzea.

#### **10. artikulua. Erreserbaren titularraren eta erabiltzaileen betebeharrak**

Erreserba egiten duen pertsona edo, hala badagokio, hark ordezkatzeko duen elkarteak izango da txokoa egiten den guztiaren erantzule, eta ordenantza betetzeko konpromisoa hartuko du.

Bai erreserbaren titularrak eta bai txokoaren erabiltzaileek honako betebeharrak izango dituzte:

1. Erreserba egin, tasak ordaindu, debekuak eta ordutegia errespetatu.
2. Instalazioak erreserbatzeari eta erabiltzeari buruzko administrazio batzarrak emandako argibideak jarraitu.
3. Eraikina eta hura osatzen duten elementuak zaindu.
4. Txokoa eta haren instalazioak kontserbazio eta garbitasun egoera onean eduki.
5. Liskarrik ez izan, eta, oro har, eraikinean eta haren ekipamenduan kalteak eragin ditzakeen ekintzarik ez egin.
6. Txokoa dauden materialak eta ematen diren zerbitzuak txukun eta garbi mantendu, eta argibideak jarraitu.
7. Administrazio batzarrari edozein kalteren berri eman, gehienez bi eguneko epean.
8. Txokotik irten baino lehen, honako hau egin beharko da:
  - a. Argiak itzali.
  - b. Galdara itzali.

- c. Tresna elektrikoak itzali (horren beharrik ez dutenek izan ezik).
  - d. Ateak eta leihoak itxi.
  - e. Erabilitako gauzak jaso.
  - f. Txokoa erabiltzean sortutako zaborra gaika sailkatu eta atera, birzikla dadin.
9. Txokoan egin nahi den jarduera ikuskatzen utzi administrazio batzarreko langileei.
10. Zigorra jaso izanagatik txokoa erabiltzea debekatuta duen norbait bertan sartzeko bada, administrazio batzarrari lehenbailehen jakinarazi.

### **11. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak**

Martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak 6 n) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Txokoa erabiltzeari dagokionez, arau hauste motak eta horien arabera zigorrak jasotzen ditu ordenantza honek.

Txokoaren erabiltzaileak izango dira erantzule ondasunei edo pertsoneri kalteak eragiten badizkiete.

Behar diren egiaztapenak egingo dira ordenantza hau betetzen dela egiaztatzeko, eta atzemandako arau hausteak zigortzeko.

Ordenantza honetan jasotako arau hausteak arin, larri eta oso larri gisa sailkatzen dira.

1. Arau hauste oso larriak dira:

1.1 Erreserbarik egin gabe txokoa erabiltzea.

1.2 Tasen zenbatekoak horretarako ezarritako epean ez ordaintzea.

1.3 Txokoa erabiltzen ez uztea horretarako baimena duen pertsona edo talde bati.

1.4 Txokora sartzeko eta hura erabiltzeko uztea adingabeei, haien guraso edo tutoreak bertan ez daudela.

1.5 Nahita kalteak eragitea instalazioetan eta erabilgarri dauden materialetan, edota eraikinean, txokoa aldi baterako erabilezin uzteraino.

1.6 Txokoa erabiltzen uztea horretarako baimenik ez duen norbaiti.

1.7 Zehapen espedientea ireki aurreko urtean, bi arau hauste larriengatik zigorra jaso izana.

1.8 Instalazioak, hango zerbitzuak eta erabiltzaileen eskura jarritako materialak behar ez bezala erabiltzea, eta ondorioz, haiek hondatzea edo arrazoirik gabe arriskuak sortzea.

1.9 Txokoa erabiltzea isuna jarri bazaio eta ordaindu ez badu, edo txokoan sartzeko debekua ezarri bazaio.

2. Arau hauste larriak dira:

2.1 Erreserben liburuan ez idaztea txokoan izan diren pertsonen benetako kopurua, edo egon den pertsona kopuruari dagokiona baino diru gutxiago ordaintzea.

2.2 Indarrean dagoen ordenantzan ezarritako zarata mugak gainditzea musika ekipoen bidez, megafoniaren bidez, etab.

2.3 Txokoa erabiltzea ordenantza honetan ezarritakoaz bestelako helburu baterako, 2. artikuluan aipatutako baimena izan gabe.

2.4 Mahaiak edo bestelako altzariak kalera ateratzea horretarako arrazoirik gabe, aulkiak salbuetsita (erabiltzailearen ardurapean).

2.5 Zehapen espedientea ireki aurreko urtean, hiru arau hauste arinengatik zigorra jaso izana.

2.6 Txokoarentzat ezarritako edukiera gainditzea.

2.7 Ate nagusia eta egurtegiko atea ez ixtea.

2.8 Ordenantza honen 9. eta 10. artikuluetan jasotako betebeharretakoa edozein ez betetzea.

3. Arau hauste arinak dira:

3.1. Txokotik irteteen janaria edo norberaren beste edozer gauza ez ateratzea.

3.2. Sukaldeko tresneria, beirateria eta ontziteriako piezaren bat hondatzea, eta horren berri ez ematea.

3.3. Sukaldeko tresneria, beirateria edo ontziteriako edozein pieza ostea.

4. Aurreko ataletan adierazitako arau hausteengatik honako zigor hauek ezarriko dira:

4.1. Arau hauste oso larriak:

4.1.1. 500 eta 1500 euro arteko isuna.

4.1.2. Eta txokoa gauza pribatuetarako erabiltzeko debekua, 1 eta 5 urte arteko aldi baterako.

4.1.3. 1.1.10 puntuan arau hauste oso larri bategatik zigorra jaso duenak ezingo du txokoa erabili denboraldi jakin batez (etxe/familiako gainerako kideek giltza izaten jarraituko dute eta txokoa erabili ahal izango dute).

4.2. Arau hauste larriak honela zehatuko dira:

4.2.1. 100 eta 500 euro arteko isuna.

4.2.2. Zehatutako pertsona aurretik zigortuta badago arau hauste larri edo oso larri bategatik eta zigorra oraindik indarrean badago, ezingo da txokora sartu 6 hilabete eta urtebete arteko aldi batean. Hala badagokio, zigor horrez gain aurretik txokora sartzeko duen debekuari eutsiko zaio.

4.3. Arau hauste arinak:

4.3.1. Lehenengo bi arau hausteengatik idatzizko ohartarazpena egingo da. 12 hilabeteren buruan hirugarren arau hauste arin bat eginez gero, zehapen espedienteak irekiko da.

4.3.2. Zehatutako pertsona aurreko 12 hilabeteetan zigortu egin badute arau hauste larri edo oso larri bategatik, ezingo da txokora sartu 6 eta 9 hilabete arteko aldi batean.

4.3.3. Norbaitek 12 hilabeteko epean 3 arau hauste arin egiten baditu, ezingo da txokora sartu 3 eta 6 hilabete arteko aldi batean, lehen arau haustea egin zuen egunetik hasita. Urtebeteko epean laugarren arau hauste arin bat egiten badu, hura oso larritzat joko da.

4.4. Arau hauste horrekin batera adierazpen xenofoboak, arrazistak edo sexistak eginez gero, zigorrak gogorrena ezarriko da.

## **12. artikulua. Zehapen espedientearen prozedura**

1. Espedienteak izapidetzean Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak dioena beteko da, zehapen espedienteak irekitzeko, izapidetzeko, errekurtsoak jartzeko eta ebazteko prozedurei eta haien bermeei dagokienez, bai eta lege hori garatzen duten arautan ezarritakoa ere.

2. Administrazio batzarrak prozedura bideratuko duen pertsona izendatuko du, aipatu den arauarekin bat etorritik.

3. Zehapen prozedurak ebazteko organo eskuduna auzotarren batzarra izango da. Hark bozkatuko du ezarri beharreko zigorra, zehapen espedientearen izapidegileak eta administrazio batzarrak proposatuta.

4. Erreserba egin duen pertsona izango da ordenantza honetan jasotzen diren arau hauste guztien erantzule.

**13. artikulua. Administrazio batzarraren eginkizunak**

1. Administrazio batzarra arduratuko da txokoa mantentzeaz, eta, beraz, zeregin hauek hartuko ditu bere gain: lokala garbitzea; uraren, gasaren eta argindarraren fakturak ordaintzea; hondatutako materialak berritzea, eta erabileragatik hondatzen diren instalazioak konpontzea.

Administrazio batzarrak arau hausleari eskatu ahal izango dio berritu edo itzuli dezala ostutako edo hautsitako tresneria, eta horrez gain dagokion zigorra ezarri ahalko dio.

Lasarte, 2019ko irailaren 2a

*Lehendakaria*

*JOSÉ IGNACIO MARTÍNEZ DE ICAYA*